

*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**2**

**Sorpresa!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 1. maila)

# TXANELA 1

## 2. unitate didaktikoa

### SORPRESA!

#### LABURPENA

Lehenengo unitatean norberaren aurkezpena egin, gelako lagunak ezagutu eta espazioaren eta denboraren antolaketarako lehen urratsak eman ditugu. Bigarren unitate honetan, zikloko abenturaren lehen aurkezpena, hau da, denboraren makinaren aurkezpena, eta Maddalenen eta Ferminen ingurua eta laguntxoaren aurkezpena egingo ditugu. Proiektu berri bat ere garatuko dugu: gelako guztien artean gure denboraren makina eraikiko dugu.

Aurreko unitatean bezala, eta ondorengo unitateetan ere egingo dugun moduan, unitatearen lanketa azalari behatuz hasiko dugu. Zer ote da Ferminen daukan sorpresa? Unitatean zehar garatuko duguna aurreikusten hasteko aukera daukagu. Ondoren, ziklo osoan zehar unitate guztien gaien eta zereginen kokatzen lagunduko digun testua aztertuko dugu, komikia alegia. Jarraian laguntxo berriak ezagutuko ditugu eta sorpresaren eta urtebetetzeko opariaren inguruan jardungo dugu, lehen zikloko abentura adierazten duen *Denboraren makina* abestiarekin eta proiektuaren (ikus konstante honen adierazle dugun "bonbilla") aurkezpenarekin bukatzeko. Hor, haurrei taldean egiteko proposamena egiten zaie.

Ondoren, motorrak berotzen hasteko asmoz, "Artelana" konstantean, proiektua eta artea lotzen da hein batean. Horrela emango diogu hasiera proiektuaren planifikazioari (ideiak sortzea, prozesuan antolatzea) eta berrikuntza edota ekite-faseari, hots, planifikatutakoa gauzatu egingo dugu.

Azkenik, istorioko pertsonaien egoerara bueltatu eta gure lanaren balorazioa egingo dugu, eta liburuak etxera eramanez, gure lana etxekoekin partekatuko dugu, haien iritzia jasoz. Aurreko unitatean adierazi bezala, etxekoek dagokie haurraren azalpenak entzutea, egindakoa positiboki baloratzea eta euren balorazioa haurrarekin batera edota haurraren alboan idatziz adieraztea, ondoren, balorazio horiek gelan partekatzeko.

#### MATERIALA

- Unitate honen gida:
  - Jardueren zerrenda.
  - Unitate honi dagozkion zikloko amaierako helburuak.
  - Unitateko ebaluazio irizpideen taula.
  - Unitatea bi astetan egiteko planaren proposamena
  - Jardueren deskribapena eta helburuekiko eta ebaluazio-irizpideekiko lotura.
  - Eranskinak: gaztelania, material osagarria, ipuina...
- Ikaslearen liburua, irakurgaiak, abestien CDa, lan-koadernoak.
- Denboraren makina eraikitzeke zein apaintzeko materialak. Gurasoei sorpresa egiteko papera eta hura apaintzeko tenperak.
- Argazki-kamera.
- Gutun-azala eta zigilua Maddalenen eta Ferminen gutuna (ikus 5. jarduera) lehenbailehen postara bidaltzeko.
- Liburu digitala (zoom-liburua).

SEKUENTZIA	PROIEKTUAREKIKOAK	JARDUERAK (2. u. d.)	IZAERA
<b>HASIERAKOAK</b> - Aurre-ezagutzak aktibatu - Gaiarekiko motibazioa sortu - Aurreikuspen-estrategiak landu - Proiektua aurkeztu	KOKAPENA ETA AURKEZPENA	1. Azalari behatzea eta elkarriketa 2. Komikia: Maddalen eta Fermin oporretan 3. Pertsonaien laguntxoaren aurkezpena Xangoren eskutik 4. Bertsoa osatzen 5. Maddalenen eta Ferminen gutuna(k) 6. Olerkia eta sorpresaren inguruko hipotesiak 7. Sinfonia. Sorpresa 8. Oparia. Denboraren makina 9. Abestia. Denboraren makina 10. Etxerako gutuna 11. Proiektuaren aurkezpena	1. Garrantzizkoa 2. Garrantzizkoa 3. Garrantzizkoa 4. Osagarria 5. Osagarria 6. Garrantzizkoa 7. Garrantzizkoa 8. Garrantzizkoa 9. Garrantzizkoa 10. Osagarria 11. Garrantzizkoa
GARAPENA	SORMENA  PLANIFIKAZIOA  BERRIKUNTZA	12. Artelana 13. Ipuinari bueltaka + Lan-koadernoa 14. Ipuina: Irakurri bitartean, irakurri ondoren 15. Makina imajinatzen eta izenak asmatzen 16. Arduren banaketa: zer eta nork ekarri 17. Gure makina eraikitzen 18. Gure makina martxan	12. Osagarria 13. Osagarria+Hautazkoa 14. Garrantzizkoa 15. Garrantzizkoa 16. Garrantzizkoa 17. Garrantzizkoa 18. Osagarria
AMAIERAKOAK	KOMUNIKAZOAZ BALORAZIOA	19. Makinaren argazkia eta argazki-oina. 20. Bidaien bertsoa 21. Buelako komikia 22. Egindakoa berrikusten 23. Etxekoentzako sorpresa prestatzen	19. Garrantzizkoa 20. Garrantzizkoa 21. Osagarria 22. Garrantzizkoa 23. Hautazkoa

**2. UNITATE DIDAKTIKOA: SORPRESA!  
ZIKLO AMAIERAKO HELBURUEN ETA JARDUEREN ARTEKO HARREMANA**

**HIZKUNTZA ARLOA (1)**

HELBURUAK	JARDUERAK
1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaietarako buruzkoak).	6
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.	6
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	1, 2, 3, 12, 13, 21, 22
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.	7
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	1, 2, 3, 4, 6, 8, 9, 11, 13, 14, 20, 21, 22
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	5, 10, 14, 21
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarriko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	4, 5, 6, 7, 15, 16, 19, 22
1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.	17
1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nor bere kultura-nortasuna erakitzeke eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.	9, 20
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) erakitzeke ere.	4, 6, 13, 14,
<b>INGURUMENAREN EZAGUERA ARLOA (2)</b>	
2.8 Material, substantzia eta makina sinpleekin esperimentu errazak egitea autonomiaz, bai eta eguneroko bizitzako objektuak muntatzea eta desmuntatzea ere, eta horiek nola funtzionatzen duten eta modu egokian nola erabili deskribatzea.	8, 17
<b>ARTE HEZKUNTZA ARLOA (3)</b>	
3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.	4, 7, 9, 13, 18, 20
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.	12
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	7, 13, 15, 17, 23
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzak eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	17
4.2 Hainbat testuingurutan lanaren plangintza egitea, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arazoituz.	16

2. U. D EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1.3 Gaia identifikatzen du.	1.2.1 Ahozko jarraibideen arabera jokatzeko du.	1.2.2. Identifikatutako datuak erabiltzen ditu.	1.3.1 Berez parte hartzen du ekarpenak egiteko.	1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderari erantzuten die.	1.3.4 Elkarrizketa-arauak aplikatzen saiatzen da.	1.4.3 Era ulergarrian eta adierazten ditu ideiak.	1.5.1 Idatziari behatzen aktiboki parte hartzen du.	1.6.2. Testu genero ohikoak bereizten ditu.	1.6.3. Hitzekoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du.	1.8.1 Idatziazen erakitze-prozesuan aurrerapenak egin ditu.	1.8.2. Emandako komunikazio-egoeraren ezaugarrien edukiak adierazten ditu	1.8.8 Ikasleekin batera parte hartzen du testuak sortzen eta berrikusten.	1.11.1 Euskara erabiltzen du pertsonen arteko harremanetan	1.12.1 Literatura izaera duten zatiak ikasi eta errezitatzen ditu.	1.13.1 Literaturaz gozatzen du.	2.8.3 Makinak behatu, desmuntatu eta muntatu egiten ditu...	2.9.2 Erregistroak egiten ditu.
	JARDUERAK	6	6		22	1	7	1	5	21	4	5	19	17	9	4	8	17
IKASLEAK				1 2 3 12 13 21 22			1 2 3 4 6 8 9 11 13 14 20 21		10 14		5 6 7 15 16 19	15 16			20	6 13 14		
1.																		
2.																		
3.																		
4.																		
5.																		
6.																		
7.																		
8.																		
9.																		
10.																		
11.																		
12.																		
13.																		
14.																		
15.																		
16.																		
17.																		
18.																		
19.																		
20.																		
21.																		
22.																		
23.																		
24.																		
25.																		

<b>2. U.D</b> <b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>		3.2.1 Ahotsaren{...} soinua aztertzen ditu.	3.2.2 Abestiak aho batez interpretatzen ditu.	3.2.8 Adierazpenarekin gozatzen du.	3.2.10 Mugimenduak inprobisatzen ditu, hainbat soinu-estimuluri erantzuteko.	3.3.3 Arte-ekoizpenekiko errespetua adierazten du.	3.4.1 Mairrazkiak... egiten ditu, sentimenduak adierazteko.	3.4.2 Trazoaren aukerak probatzen ditu.	3.4.3. Hainbat material motatan nahasteak eta orbanak egiten ditu.	3.4.8 Materialak manipulatu gozatzen du.	4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	4.1. 2 Ideiak, sentimenduak eta proposamenak trukatu ditu.	4.1. 3 Taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen da lankidetzan.	4.1. 4 Besteen azalpenak balioesten ditu.	4.1.8. Lanerako materialak arretaz erabiltzen eta jasotzen ditu.	4.1.10 Ahal duen neurrian laguntzen die gainerakoei	4.2.1 Hainbat testuingurutan lanaren ekoizpen-prozesuaren antolaketa...
<b>JARDUERAK</b>		4 9 13 20	7 12	12 18	12	7 15	23	23		17	17	17	17	17	17	16	
<b>IKASLEAK</b>																	
1.																	
2.																	
3.																	
4.																	
5.																	
6.																	
7.																	
8.																	
9.																	
10.																	
11.																	
12.																	
13.																	
14.																	
15.																	
16.																	
17.																	
18.																	
19.																	
20.																	
21.																	
22.																	
23.																	
24.																	
25.																	

## SORPRESA! 2. UNITATE DIDAKTIKOAREN DENBORALIZAZIO PROPOSAMENA

TXANELA 1 2. U. D.	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1. astea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Azalaren behaketa</b> eta elkarriketa.</li> <li>• <b>Komikia:</b> Maddalen eta Fermin oporretan.</li> <li>• <b>Pertsonaien laguntxoaren aurkezpena.</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bertsoa osatzen</li> <li>• Olerkia eta sorpresaren inguruko hipotesiak.</li> <li>• Sinfonia Sorpresa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Maddalenen eta Ferminen gutuna</li> <li>• Oparia: <i>Denboraren makina.</i></li> <li>• Abestia: <i>Denboraren makina.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuaren aurkezpena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Makina imajinatzen eta izenak asmatzen</li> <li>• Arduren banaketa: zer eta nork ekarri</li> </ul>
				<ul style="list-style-type: none"> <li>• Artelana</li> <li>• Ipuinari bueltaka</li> </ul>	
2. astea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ipuina: Irakurri bitartean, irakurri ondoren.</li> <li>• Gure makina eraikitzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gure makina eraikitzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gure makina eraikitzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gure makina eraikitzen</li> <li>• Gure makina martxan</li> <li>• Bidaien bertsoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Makinaren argazkia eta argazki-oina.</li> <li>• Egindakoa berrikusten</li> <li>• Etxekoentzat sorpresa prestatzen</li> </ul>
				<ul style="list-style-type: none"> <li>• Buelta komikia.</li> </ul>	





# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardatz tutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak kompetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT kompetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoan, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara-Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoan, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango dituzte Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzailerak, etab. erabili beharrik gabe.












Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitalak jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango dituzte baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

# TXANELA 1

## IKASLEAREN LIBURUA - 2. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	17	
1		Azalari behatzea eta elkarrizketa	3	17	
2		Komikia	4-5	18-19	
3		Pertsonaien aurkezpena	6	20	
3		Pertsonaien irudiak	6	20	
4		Bertsoa osatzen	6	20	Lan-koadernoa, 9. or.
5		Gutuna	6	20	
6		Olerkia	7	21	
7		Entzunaldia: Sorpresa	7	21	
8		Oparia	8	22	
9		Denboraren makina	9	23	
9		<i>Denboraren makina</i>	9	23	
10		Gurasoei gutuna	9	23	
11		Proiektua	10	24	

12		Artelana: Marcel Duchamp	11	25	
14		Ipuina (bertsio luzea)	11	25	Irakurgaiak, 18-21. or.
15		Makina imajinatzen	12	26	
16		Arduren banaketa	13	27	
19		Makinaren argazkia	14	28	
21		Bueltako komikia	15	29	Irakurgaiak, 23. or.
22		Iritziak	16	30	
22		Iritzi-fitxa (gaztelaniaz)	16	30	

# JARDUERAK

1. JARDUERA	<b>AZALARI BEHATZEA ETA ELKARRIZKETA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b></p> <p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.3.4 Elkarrizketaren oinarriko arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen saiatzen da (txanda gorde, hitza eskatu, solaskideak errespetatu...).</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Txanela 2. unitateko liburuaren azala
<b>AZALPENA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde handian azalaren behaketa eta elkarrizketa bultzatuko ditugu (ikus, taldeko elkarrizketari dagokion dokumentua bigarren zehaztapen-mailan). Haurren interesei jarraituz eta erronka kognitiboa bultzatuz, aurreikuspen-estrategiak lantzea eta gaiarekiko motibazioa sortzea izango dugu helburu.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Hemen dugu Txanelako 2. liburuxka. Zer ote dakar barnean?</i></li> </ul> </li> <li>• Gelako arduradunek liburuak banatu ondoren, denbora eman ikasleei barrutik ikusteko.</li> <li>• Izena jarri eta gero, azalaren inguruko elkarrizketa egingo duzuela esan. Elkarrizketan azalean ikusten dugunaren inguruan (idatzia, pertsonak...) jardungo dugula adierazi, eta banakako gogoeta egiteko minutu batzuk eskaini.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Beha diezaiogun azalari. (Liburu digitalaren bidez, azala proiektu daiteke)</i></li> </ul> </li> <li>• Mota honetako galderak erabili ditzakezue:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Zer ikusten da? Gogoratzen al duzue zer den "txanela"?</i></li> <li>- <i>Zer jartzen du? (Zer jar dezakeela pentsatzen duzue?) Zergatik?</i></li> <li>- <i>Ezagutzen al duzue azaleko haurra? Eta animaliak? Zein animalia dira? Ba al dakizkizue horien izenak?</i></li> <li>- <i>Zer du Ferminek esku artean?</i></li> <li>- <i>Nolako paketea da? Handia txikia... Eta biltzeko papera? ...</i></li> <li>- <i>Imajinatu horrelako pakete handia eraman behar duzuela... Astuna da... arina da...</i></li> <li>- <i>Nola dago Fermin? Triste? Pozik? Haserre? Pentsakor...?</i></li> <li>- <i>Zergatik ote da?</i></li> <li>- <i>Ba al dakizue nola deitzen diegun pertsonaiek esaten dutena idatzita azaltzen den biribil horiei? (globoak) Ez? Zeren forma dute?...</i></li> <li>- <i>Irakurriko al ditugu guztion artean?</i></li> </ul> </li> <li>• Azalak oso globo gutxi eta testu-masa txikia duela baliatuz, zati bat proiektu dezakegu eta globoetan arreta jarri, idatzia deskodetzen saiatuz.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Begira nolako globo dotorea daukan, koloretakoa, letra bakoitzak bere kolorea dauka! Ea, zein da letra gorria? Nork dauka bere izenean letra hori? (Saraiek, Sarak, Sergiok....). Eta deituran? (Sarasolak, Serrasek...).</i></li> <li>- <i>Nolako soinua du "SSSSSS" letrak?</i></li> <li>- <i>Eta letra urdina...</i></li> </ul> </li> <li>• Era autonomoan irakurtzeko gai ez badira ere, galdera ikur bat eta bi harridura ikusi ditugu eta testuak oso laburrak direnez, ikur horiei ematen diegun intonazioarekin irakur ditzakegu guztion artean (irakurketa partekatua).             <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Zuek sorpresak maite al dituzue? Norbaiti ematen al dizkiozue? Nori-zer... pentsatu eta bakoitzak adibide bana jar dezake.</i></li> <li>- <i>Pozik egoten al zarete norbaiti sorpresa bat ematen diozuenean...?</i></li> <li>- <i>Zer irudituko litzazueke liburuxka bukatzen dugunean, guk ere etxekoei sorpresa bat egiten badiegu? Gainera, Ferminek bezala, dotore-dotore bil dezakegu! Papera guk apaindutakoa izan daiteke....</i></li> <li>- <i>Zer izan daiteke? Pentsatu eta egun batzuk barru hitz egingo dugu, berriz, horretaz.*</i></li> <li>- <i>Txakurrak, EZETZ asmatu esan digu! Zuek zer pentsatzen duzue? Asmatuko al dugu denon artean?...</i></li> </ul> </li> <li>• Hipotesiak garatzeko teknika egokia arrastoen behaketa bideratua lantzea da. Paketaren behealdean sagutxoak daude urtebetetzeko tarta baten aldamenean. Behatu zati horri, eta zer adierazi nahi ote duen galdetu haurrei.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Liburuxkaren azalean ikusi duguna ikusita, zer pentsatzen duzue azalduko zaigula barruko orrialdeetan?</i> (Nahi izanez gero haurren hipotesiak zerrendatu, eta zerrenda gelan bistan jarri. Haurrei esango diegu Ferminek duena zer den asmatzen saiatuko garela unitate hasiera aldera, eta gainera ziur dakigunean, berriro zerrendari begiratuko diogula, hor azaltzen dena sorpresa delako.)</li> </ul> </li> </ul> <p>* Etxekoei, unitatea proiektuaren argazkiarekin oparitu diezaiekegu, guk apaindutako biltzeko paperean bilduta.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

2. JARDUERA	<b>KOMIKIA: MADDALEN ETA FERMIN OPORRETAN</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA/K</b>	
<p><b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b></p> <p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Nagusiki Talde Handian, nahiz eta bakarkako eta binakako uneak ere interesgarriak diren.
MATERIALA	Liburua, 4-5. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Komikia Txanela proiektuaren lehen zikloaren istorioari, ardatzari, lotura emango dion elementua da. Aurreko unitatean Maddalen eta Fermin ezagutzeko aukera izan dute hurrek baina oraindik ez dute “denboraren makina” ezagutzen. Ez dakite, ziurtasunez ez behintzat, bi maila hauetan zehar nondik nora ibiliko diren gure pertsonaiak, eta, gainera, beren maskotak ere ez dituzte ezagutzen.</p> <p>Oporretan, eguraldi txarreko egun batean, Maddalenen aitonaarekin daudela, birraitonaren makina erakutsiko die hark. Ferminen ez du Maddalenen oparia prestatu eta kezkatuta dago, baina 5. orrialdearen azken binetan, ideia bat otuko zaio. Zer ote da? Unitatearen azalean azaltzen den “Sorpresa”rekin zerikusirik ote du?</p> <p>(Ikus, taldeko elkarrizketari dagokion dokumentua, bigarren zehaztapen-mailan)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Beste ezertan hasi aurretik, esku artean duten testua (komikia) aurkez diezaiekegu.       <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Ipuin bat al da? (Komikia da) Istorio bat kontatzen al digu? Nola?</i> (Binetak, marrazkiak, globoak, pertsonaien hitzak...).</li> </ul> </li> <li>• Talde handiko “Irakurketa” (partekatua) hasi aurretik, utzi tarte bat hurrek bakarka/binaka komikiari beha diezaioaten.       <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Ba al dakigu komiki bat nola irakurtzen den? Nondik hasten da? Nondik jarraitzen dugu?...</i></li> </ul> </li> <li>• Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta irudiei eta testuari lasai behatzeko aukera eskaini ondoren, gertatzen denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu ikasleei. Eman banaka/binaka pentsatzeko denbora, eta, ondoren, partekatu ideiak.</li> <li>• Haurren artean irakurketa-mailan aldeak izango, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu) komikia. Liburu digitalaren bidez ere (edota eranskineko irudiak proiektatuz), hurrek irakaslea irakurtzen ari dena, eta zein ordenatan ari den, ikusi ahal izango dute. Ondoren, guztion artean (irakaslearen ereduari jarraiki) berriz irakurriko dugu eta azkenik, lehen orrialdeko globoak eta koadroak desordenan proiektatu (irakaslearen material osagarriari komikiko zatiak dituzue proiektatzeko edota inprimatuz hurrei zatika emateko); gero, liburuari behatuz eta aurretik “irakurri” duguna baliatuz, ordenatu egingo ditugu pantailan. Gauza bera egingo dugu bigarren orrialdearekin, eta, azkenik, berriz irakurri dugu guztia.</li> <li>• Oraingoan, ebaluazio-irizpiderik jarri ez badugu ere, hurrengo unitatean hasiko baikara, globoen formari ere errepara diezaiokegu, batez ere, azken binetan Fermin “pentsatzen ari dela” adierazten duena beste globoekin alderatuz. Komiki-hizkuntzak bere kodeak ditu, eta ez dira gauza bera, esatea edota pentsatzea adierazten duten globoak. Galdera ikurrari erreparatzea ere komeni da.</li> <li>• Gelakideen mailaren arabera, lauko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (narratzailea, Fermin, Maddalen eta aitona) berriz irakur daiteke. Launaka saioak egin ondoren ere egin daiteke “irakurketa” hori.</li> <li>• Bukatzeko, Ferminen “ideia” zein izan daitekeen aurreikustea eskatuko diegu hurrei, eta hipotesiak azalaren behaketan bildu ditugunekin erkatuko ditugu.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

3. JARDUERA	<b>PERTSONAIEN LAGUNTZOEN AURKEZPENA XANGOREN ESKUTIK</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA/K</b>	
<p><b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b></p> <p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 6. or.
<b>AZALPENA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eman denbora hurrei orrialdeari behatzeko. (Irakasleak material osagarrian ditu orrialdearen hainbat zati elkarrizketa laburraren ondoren proiektatzeko)</li> <li>• Elkarrizketa laburra egingo dugu ikusten dugunaren inguruan: <i>nor dagoen, nor ezagutzen dugun, nor ez, zer esaten ari zaizkigu...</i> (ikus, taldeko elkarrizketari dagokion dokumentua bigaren zehaztapen-mailan).</li> <li>• Xehetasunak aztertuko ditugu orain, bai pertsonaien aldekoak eta baita testuaren aldekoak ere (proiektagailua erabil dezakezue).</li> <li>• Pertsonaien marrazkiak apainduta (ikastola.net web-orrian, gida honen eranskinean eta liburu digitalean dituzue irudiak) eta euren izenak jarriko ditugu gelako horma batean. (Nahi izanez gero, haur bakoitzari ere pertsonaien irudiak dituen orria eman diezaiokegu eta hurrek bakoitzari dagokion izena idatz dezakete (gogoratzeko).</li> </ul> <p>* Oharra: Gaztelania landuko duzuenok, gida honen eranskinean daukazue Curroren aurkezpenerako proposamena.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

4. JARDUERA	<b>BERTSOA OSATZEN</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA/K</b>	
<p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p> <p><b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b></p> <p><b>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</b></p> <p><b>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Lan-koadernoak, 9. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Mikel Mendizabalen lehen bertsoari helduko diogu orain. Bertso horrek erriman arazotxo bat eduki dezake ohitura handirik ez duenarentzat (POX ez da GATOZ bezala bukatzen). Batetik, mailako lehen bertso-ariketa da, eta bestetik, irakurketa autonomoa egiteko ezintasuna. Beraz, eta betiere taldearen arabera, lana errazteko hainbat estrategia erabil ditzakegu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kopla horietako bakoitzari oin bakarra kendu diogu eta aldameneko poltsan sartu dugu bertsoan utzi dugunarekin batera. Poltsatik dagokiona aukeratu eta koplari idatzi beharko dugu.</li> <li>• Kopla horiek arbelean edota proiektatuta edukitzea komeni da guztiek prozesuari jarrai diezaioten.</li> <li>• Lehenik, koplak direla adierazi eta hainbat musika erabil ditzakegula esan. Adibidez: "Ama begira zazu" doinua aurkez dezakegu. Irakasleak, lehenengo kopla irakurriko du (eskuarekin lagundu non gabiltzan jakiteko), eta hutsunea dagoen tokira iristean, musikarekin jarraituko du. Falta den hitzaren silaben ordeztuz, <i>la-la</i> edo <i>ta-ta</i> egin, hor zerbait falta dela ikusaraziz.</li> <li>• Pertsonaia berrien izenak aurkezpenean ikusi ditugu, eta horiek baliatuko ditugu berriz ere bertsoan haiek identifikatzeko (bertsoan Reddy eta Curro ez dira azaltzen).</li> <li>• Irakasleak, guztia, kantatuz irakurriko du berriz (pare bat aldiz).</li> <li>• Guztien artean "irakurriz" abestuko dute.</li> <li>• Poltsari erreparatuko diogu orain: <i>Zein hitz dago, dagoeneko, koplari? Zein falta da? Zer jartzen du? (gatoz)</i></li> <li>• "Gatoz" hartu, eta bere tokian idatziko dugu.</li> <li>• Berriz irakurriko/abestuko dugu, ea zentzurik ba ote duen.</li> <li>• Bigarren koplakarekin prozedura bera erabiliko dugu.</li> <li>• Lan-koadernoan, banaka zein binaka koplak osatuko dituzte (irakasleak ikusiko du arbelean edota proiektazioan koplak utzi ala ez).</li> <li>• Gogoratu, CD-ROMeko idazketa-tailerrean testuak idazteko txantilo politak dauzkagula. Hori baliatuz, bertsoak, abestiak, olerkiak... ordenagailuz garbira pasatzeko aukera daukagu, eta bilduma dotorea osa dezakegu. Liburu digitalean ere, badaukazue aldatetako onartzen dituen lan-koadernoko fitxa.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

5. JARDUERA	<b>MADDALENEN ETA FERMINEN GUTUNA(K)</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA/K</b>	
<p><b>1.6</b> Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</p> <p><b>1.8</b> Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	
<p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanez.</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez. (gutuna taldean idaztea erabakitzen baduzue)</p> <p>1.8.2 Emandako komunikazio-egoeraren ezaugarrien araberrako edukiak adierazten ditu. (gutuna taldean idaztea erabakitzen baduzue)</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Papera, gutun-azala, zigilua. Gutunen ereduak (eranskina)
<b>AZALPENA</b>	
<p>Etixerako eskutitza edo gutuna idatzi, gutun-azalean sartu eta zigilua jarri ondoren postaz ikastolara bidal ezazue. Igorleari dagokion tokian "Maddalen eta Fermin" idatzi.</p> <p>Jarduera honekin, alde batetik, Haur Hezkuntzan gutunaren inguruan landutakoa gogoratuko dugu: helbidea, zigilua, igorlearen izena... eta bestetik Lehen Hezkuntzaren Lehen Zikloan gure pertsonaia gidariekin lehen harremana egingo dugu.</p> <p>Oharra: Ikus gidaren 2. eranskina: Gutunen ereduak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gutuna ikastolara iristean, taldean aztertu, behatu eta irakurriko dugu: <ul style="list-style-type: none"> <li><i>- Begira, gaur goizean postariak gutun bat ekarri digu:</i></li> </ul> </li> </ul> <p style="text-align: center;"><b>TXANELA IKASTOLA. DORTOKA GELA</b> Orkolaga pasealekua 5 31.017 ARRALDE BIZKAIA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><i>- Gogoratzen al zarete gutunetan helbidea nola idazten zen? Lehenengo, hartzailearen izen-abizenak; ondoren, kalea, zenbakia eta pisua; segidan, posta- kodea eta herria eta azkenik herrialdea.</i></li> <li><i>- Postariak guri eskutitza ekartzeko zer jarri behar dugu gutun-azalean? Zigilua, ezta?</i></li> <li><i>- Ea, baina nola jakin dezakegu igorlea zein den? Begiratuko al dugu atzealdean?</i></li> </ul> <p style="text-align: center;"><b>MADDALEN ETA FERMIN</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><i>- Ezagutzen dituzue, ezta? Goazen bada irakurtzera (irakasleak irakurriko du) idatzi diguten eskutitza!</i></li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gutunei erantzutea giza legezkoa denez, irakasleak, idazkari lana arbelean eginez, gutun labur bat idatziko du (haurrekin partekatuko ditugu ideiak, egitura, elementuak eta kodetzearen hainbat zati), Maddaleni eta Fermini bidaltzeko. Gutunak testu-egitura jakina du, eta horixe ekarriko dugu gogora. Nahi izanez gero, ZIRRI BORRO CD-ROMean hainbat testuren egituraren eta elementuen berri ematen da, hainbat eta hainbat eredu eskainiz. Helbidea, Oriokoa? Vianakoa? Taldean eztabaida dezakezue; bestela, bozkatu edo zotz egin (Ferminek jasotzen badu, Maddaleni pasatuko dio, eta alderantziz). Gogoratu, bestalde, gutuna txukun-txukun editatu nahi baduzue, CD-ROMak horretarako aukera bikaina eskaintzen digula.</li> <li>Aurreraxeago gurasoei bilatzeko eskutitzaren ereduak daukazue. Ez da orain bidaltzea komeni, denboraren makina aipatzen baita, eta unitatean zehar ez dugu oraindik formalki aurkeztu. Nola nahi ere, nahi izanez gero, 10. jarduerako gutunaren gutun-azal berean sar dezakezue eta aurreraxeago irakurriko duzuela esan diezakezue haurrei.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	



6. JARDUERA	<b>OLERKIA ETA SORPRESAREN INGURUKO HIPOTESIAK.</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA/K</b>	
<p>1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuaren esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).</p> <p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarriko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.1.3 Gaia identifikatzen du.</p> <p>1.2.1 Hainbat jarduera egiteko emandako ahozko aginduen edo jarraibideen arabera jokatzeko du. (Irizpide hau ia jarduera guztietan behatzeko aukera dugunez, zenbaitetan bakarrik azalduko da analisisian).</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarriko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 7. or.
<b>AZALPENA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburua ireki eta eman ikasleei denbora pixka bat idatziari eta ilustrazioei behatzeko, irakurtzeko... Irudia ezaguna dute, beraz, azalean aurrez ikusitakoaren lotura automatikoki egingo dute.</li> <li>• Lehenik, Ferminen globoari egingo diogu so. Asmatzera gonbidatzen gaitu. Zer ote?</li> <li>• Ondoren, esan ikasleei aldamenean bi bertso ditugula eta lehenbizikoa irakurriko diezuela. Hainbat hiriburu eta herri aipatzen dira. Irakurri horiek berriro, eta galdetu ea horien izenak zerbait esaten dien.</li> <li>• Proiektatu edota arbelean idatzi. Berriz ere, irakasleak irakurriko/abestuko du. Ondoren, irakaslearen eskutik, talde handiko irakurketa egingo dugu.</li> <li>• Kodeaz hausnartzeko errimen behaketa egingo dugu. <i>Zergatik ote daude letra horiek berdez nabarmenduta?</i></li> <li>• Berdin bukatzen diren hitzak liburuan biribilduko ditugu. Ondoren, ikasleei modu berean bukatzen diren hitz berriak pentsatzeko eskatuko diegu. Hitz horiek arbelean zerrendatuko ditugu, bukaera berdina azpimarratuz.</li> <li>• Doinu batekin, berriz, ere denok abestuko dugu.</li> <li>• Asmatu ote dugu zer den Ferminen sorpresa?</li> <li>• Irakasleak bigarren bertsoa irakurriko du. Nahi izanez gero, errimaren behaketa egin berriro.</li> <li>• Banaka, galderari erantzuteko pentsatu ondoren, beren erara bi edo hiru erantzun posible idatziko dituzte ikasleek. Nahi izanez gero, idatzitakoa fresko dutenez, bakoitzak idatzitakoa "irakurriko" du.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

7. JARDUERA	<b>SINFONIA SORPRESA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.4</b> Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.</p> <p><b>1.8</b> Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p><b>3.2</b> Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p> <p><b>3.4</b> Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozaten du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Jardueren CDa, entzunaldia
<b>AZALPENA</b>	
<p>Haur Hezkuntzan egiten genuen moduan, entzunaldien inguruan Lehen hezkuntzan ere zenbait jarduera planteatuko ditugu, unitate guztietan konstante bat izanez.</p> <p>Lehenengo honetan, Ferminen sorpresa aitzakia hartuta, Haydn-en <i>Sorpres</i>a sinfoniaren 3. mugimendua entzungo dugu. Halere, ezertan hasi aurretik, konpositorearen biografia irakurriko diegu haurrei eta gelako horma batean "Gure konpositoreen txokoa" martxan jarriko dugu.</p> <p>Txoko horretan, hiruhileko bakoitzean entzuten ditugun konpositoreen argazkiak, izenak eta biografiak itsatsiko ditugu. Hiruhilekoaren bukaeran, datu horiekin, A3 neurriko orriak erabiliz, etxera eramateko karpeta bat presta dezakegu, musikan egindako lanak bilduz.</p> <p><b>Haydn, Franz Joseph.</b> Konpositore austriarra (Rohrau, Austria Beherea, 1732 - Viena, 1809). Barrokoaren amaiera eta erromantizismoaren hasiera ezagutu zituen eta tradizio frantsesa, italiarra eta alemana uztartuz musika instrumental modernoaren oinarriak ezarri zituen. Garaiko genero guztietan nabarmendu zen eta, 106 sinfonia, 68 koarteto, 62 sonata, 14 meza, operak eta oratorioak idatzi zituen (<i>Kreazioa, 1795-97; Urtaroak, 1801; Filemon eta Bauzis; Filosofoaren arima; Erlojuaren Sinfonia</i>).</p> <p>Entzunaldiaren inguruan proposatzen dizuegun jarduera honako hau da: sorpresa bat hartzerakoan zer sentimendu sortzen zaizkigun adierazi, eta sentimendu bat aukeratu ondoren, sentimendu horri buruz haurrek zer definizio ematen dizkiguten ikusi.</p> <p>Demagun "poza" aukeratzen dugula. "Poza" nola definituko (<i>Zer da poza? Zer da pozik egotea?</i>) luketen galdetuko diegu haurrei, edota noiz egoten diren pozik...</p> <p>Haurrek emandako definizioak idatzi/transkribatu ondoren, "poza" nola margotuko luketen galdetuko diegu, hau da, zer kolore erabiliko lituzketen. Seguru asko kolore "beroak" aukeratuko dituzte gehienek (horia, laranja, gorria...) eta horien aurkezpenak egin ondoren, tenperak edo ezkoak (argizariak) erabiliz, mantxaren bidez (ez du zertan figuratiboa izan beharrik) "artelan" bat egin dezatela ikasleek. Lan hori aldizkari baten azala izan daiteke (kola edo berniza eman diezaiokegu gaineratik, txukun geratzeko). Haurrek esandako definizioak idatzita eta aldamenean izanda, marrazki bidez, poza sortzen dien egoera baten irudiak jarri, eta guztionak barruan sartuko ditugu.</p> <p>Entzun dugun 3. mugimendua minueta denez, taldeko dantza erraz bat antola dezakegu.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

8. JARDUERA	<b>OPARIA: DENBORAREN MAKINA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA/K</b>	
<p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p> <p><b>2.8 Material, substantzia eta makina sinpleekin esperimendu errazak egitea autonomiaz, bai eta eguneroko bizitzako objektuak muntatzea eta desmuntatzea ere, eta horiek nola funtzionatzen duten eta modu egokian nola erabili deskribatzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.8.3 Makinak behatu, desmuntatu eta muntatu egiten ditu, beren funtzionamenduan indarrek duten eragina identifikatuz (makina sinpleak, palanka, polea, plano inklinatua...).</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 8. or.
<b>AZALPENA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eman liburua hurrei, beha diezaioten.</li> <li>• Globoaren irakurketa partekatua egingo dugu. (ikus liburu digitala, edota proiektatzeko irakaslearen material osagarria). - <i>Zer dio? Pozik al dago Maddalen?</i></li> <li>• Makinaren xehetasunak aztertuko ditugu, denboraren makinaren krokis horretan. - Lehenbizi, elementuen izenen irakurketa partekatuko dugu (ikus irakaslearen material osagarria), hitzen hasierari behatuz, eta irudiarekin erlazionatuz, bide batez, jartzen duena asmatzen saiatuz. Lehen letra zein den galdetu: "A" letrarekin zenbat hitz hasten diren, luzeena zein den, silabeatu, txalokatu... - Aipatu hurrei era horretako marrazkiak, geziekin izenak eta irudia erlazionatzen dituztenak, oro har, "krokis" izenez ezagutzen ditugula. (12. orrialdean euren makinaren marrazkia egiterakoan, nahi izanez gero, krokis moduan egiteko aukera eskaini diezaietkegu. Era horretan, euren erara pentsatu dituzten hainbat elementuren izenak idazteko aukera izango dute).</li> <li>• Era honetako galderak egin ditzakegu, xehetasunen aipamena bultzatzeko. - <i>Idatziz azaltzen direnez gain zer elementu ikusten dituzue denboraren makinan?</i> - <i>Zein dira zuretzat garrantzitsuenak? Zergatik?</i> - <i>Zertarako uste duzu balio duela antenak?</i> - <i>Eta erlojuak?</i> - <i>Eta abiada-botoiak?</i> - <i>Eta ordenagailuak?</i> - <i>Eta palankak?</i> - <i>Zer gehiago edukiko du makinak funtzionatzeko?</i> - <i>Erregairik erabiliko ote du? Zein?</i> - <i>Zer egin beharko genuke denboraren makinan bidaiatzeko?</i> - ...</li> </ul> <p>Orrialde hori geroxeago ere beha diezaietkezu, gelako makina nola eraiki pentsatzen hasten zaretenean: hemen azaltzen direnen artean zein elementu jar ditzakezuen, nola... guztion artean erabakitzeke.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

9. JARDUERA	<b>ABESTIA: DENBORAREN MAKINA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA/K</b>	
<p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p> <p><b>1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitze eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.</b></p> <p><b>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA</b>	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.12.1 Literatura izaeradun testu edo testu zati motzak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradiziozkoak nahiz gaur egungoak, buruz ikasi eta ulertzeko moduan errezipitatu ditu.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatu ditu eta buruz ikasten ditu.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 9. or.; Abestien CDa; CD-ROMa
<b>AZALPENA</b>	
<p>Dagoeneko gure pertsonaia gidariak ezagutzen ditugu eta istorioan kokatuta gaude. Hori dela eta, ikasturte guztian zehar lagunduko diguten laguntxoaren abestia ikasteko unea iritsi dela iruditzen zaigu.</p> <p>Abestiaren karaokea grabatu nahi baduzue, CD-ROMera jo, eta horretarako aukera klikatu. Nahi baduzue, has zaitezke haur bakoitzaren grabazioak gordetzen, ikasturte amaieran, bakoitzak abestu dituen kanta guztiekin CD bat graba dezakezue etxera eramateko. Karaoke horrek irakurketako estrategiak aktibatze ere balio digu. Lehenik, erdi ezagutzen duten testu baten aurrean aurkitzen dira haurrak, eta, gainera, abestu behar duten zatiaz gain, atzetik datorren esaldia aurreikusteko aukera eskaintzen zaie.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehenik eta behin, CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.</li> <li>• Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarrik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lot daitezke, erraz gogoratzeko.</li> <li>• Abestia ikasi ondoren, lehenik ilustrazioari behatuko diogu (<i>Nor eta zer dagoen, nola dauden...</i>). <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer adierazi nahi du Poxek?</li> <li>- Zer adierazten digu Urdintxok?</li> </ul> </li> <li>• Ondoren, kodearen inguruko behaketa zehatza bultzatuko dugu, hitzen bukaerari erreparatuz (errimak azpimarratuta daude). Ikasleei testuan arreta jartzen laguntzeko, abestia proiektatu dezakezu. (ikus liburu digitala, edota irakaslearen material osagarria). <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zein hitz ezagutzen dituzue? Non azaltzen dira gure pertsonaien eta beren laguntxoaren izenak? Nor gehiago aipatzen da abestian? (birraitona) Non jartzen du?</li> <li>- Entzun hitz hau: birraitona. Soinuan entzuten al da aitona? Ea nola idazten den (birraitona). Non jartzen du aitona?</li> <li>- Zergatik daude azpimarratuta eta beste kolore batez nabarmenduta letra horiek?</li> <li>- Zein letraz bukatzen da? In esaten dugun bakoitzean zer ikusten dugu idatzita? Eta INA?</li> <li>- Nork idatzi zuen kanta hau?</li> </ul> </li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

10. JARDUERA	<b>ETXERAKO GUTUNA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<b>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</b>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanetz.	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Ikus eranskina
<b>AZALPENA</b>	
Gutuna haurren bidez etxera bidaliko dugu, baina aurretik, unitate honetan ikusten duten bigarren gutuna denez, lehen uneko ulermen estrategiak landuko ditugu. Hau da, testua zer izan daitekeen (gutuna/eskutitza), zergatik dakigun hori dela, zer zati dituen (aurrekoarekin konparatuz), nor den igorlea (nola dakigun), eta hartzailea (nola dakigun), eta mezua...	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

11. JARDUERA	<b>PROIEKTUAREN AURKEZPENA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarritzko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 10. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Hemendik aurrerako unitate didaktiko guztietan konstante bat izango den atalera iritsi gara. Konstantea ez ezik, unitatean zehar landuko ditugun edukien eta zereginen justifikazioa eta artikulazioa ere izango da: PROIEKTUA.</p> <p>Proiektuak zerikusi zuzena du, apendizaiaren adierazgarritasunarekin eta funtzionaltasunarekin, baita irakasleen jarrera aktiboarekin eta apendizaiaren eraikuntza autonomoarekin ere. Eta konpetentzien azterketara jotzen badugu, EKITEN eta EKITEN IKASI konpetentziaren lanketaren muin nagusia izango dela esan dezakegu.</p> <p>Pertsona ekintzaileak hainbat ezaugarri pertsonal, sozial eta antolaketaerako ezaugarriak garatuko ditu, baldin eta eskolan horretarako aukera eskaintzen badiogu. Eta horixe da hain zuzen ere gure lana: ezaugarri horiek garatzeko aukerak eta egoerak sortzea. Ezaugarri pertsonalen artean daude: <i>iniziaitza-ekimena, autokonfiantza, autonomia, sormena, zentzu kritikoa, hobetu nahia, ardura, lorpenerako motibazioa, ahaleginari eusteko gaitasuna, egokitze gaitasuna...</i> Ezaugarri sozialen artean berriz: <i>talde-espirtua, elkarlana, enpatia, asertibitatea, elkartasuna eta komunikazioa...</i> Eta antolakuntza eta kudeaketarako gaitasunen artean: <i>behaketa eta analisisa, helburuak finkatzea, planifikazioa, erabakiak hartzea, lidertza, negoziazioa eta hobekuntzak proposatzea...</i></p> <p>Horrez gain, ekintzailetza barneratzeko prozesu jakinak burutu eta errepikatu beharko ditugu.. Gauzatu nahi den proiektuaren eta haurren adinaren arabera aldagaiak egongo badira ere, zeregina garbi edukitzea (egoeraren analisisa burutzeko), zeregina burutzeko ideiak aurkeztea (sormena) eta adostea eta zeregina nola burutu planifikatzea, ekitea eta egindakoa komunikatu eta ebaluatzea, beharrezkoak izango dira prozesua behar bezala burutu eta balore ekintzaileak barneratzeko.</p>	

Bi zutabe hauetan, euskal curriculumak definitzen dituen urratsak dauzkagu ezkerrean, eta ekintzailtzako programak definitzen dituenak eskuinean.

**Analisia:** informazioa hartzea eta gordetzea.  
**Sormena:** ideia berriak eta konponbideak lantzea.  
**Berrikuntza:** ideiak gauzatzea.  
**Ebaluazioa**  
**Aplikazioa**

**Asmatu**  
**Planifikatu**  
**Egin**  
**Komunikatu**  
**Ebaluatu**

Unitatea proiektuaren inguruan artikulatzea erabakigarria da, urrats horiek guztiak unitate guztietan lantzeko.

Bestalde, proiektua era kooperatiboan garatuko dugu. Aprestuzko kooperatiboa, kolaboratuz, guztientzat zentzua duen zerbait eginez eta kolaborazioaren emaitzaren balioa aitortuz burutzen dugun ezagutzaren eraikuntza prozesua da. Prozesu horretan zehar, trebetasun sozialak, arloetako eduki espezifikoak eta ikasketa estrategiak ikasten ditugu.

Era horretan lan eginez, gehiago eta hobeto ikastea, taldean problemak ebazten jakitea eta nola ikasten den jakitea eta horretarako biderik egokienak zeintzuk diren jakitea lortu nahi dugu; hau da: ikasteko autonomia.

Proiektuak era kooperatiboan egiteko baldintzak, honela laburbilduko ditugu:

- a.- Zer motatako zeregina eskatzen zaien oso garbi eduki behar dute.
- b.- Taldearen arrakasta taldekide bakoitzak eta guztiek ikastean dago.
- c.- Jarduera, nahitaez, taldean egitekoa da, bakarka egitea baino egokiagoa eta eraginkorragoa baita kooperazio bidez egitea.
- d.- Ezinbestekoa da ikasleek garbi ikustea zeregina taldean egiteak ekarriko dizkien abantailak.
- e.- Taldean hainbat konpetentzia-mailatako kideak egongo dira, taldea heterogeneoa, askotarikoa izango da.
- f.- Zereginaren arabera erabakiko dugu taldeak osatzeko zer irizpide erabili. Lehen zikloan irakaslearen gidaritza-papera, bitartekaritza rolaekin partekatuz, jakina, nabarmena izango da, eta zeregina kudeatzeko esku-hartzea ere bai. Ikasleek dinamika horiek barnetatzen dituzten neurrian, kooperaziorako behar dituzten trebetasunak menderatzen hasten diren heinean, bere interbentzioa jaisten joango da. Talde-lana ondo ari denaren adierazle nagusietakoa irakaslearen esku-hartzearen premia murrizten doala ikustea izango da.
- g.- Rolen banaketaren gaia ere hausnartzeko kontua da. Zenbaitetan, komeni da kide bakoitzak eta guztiak arduren kargu egitea. Baina saihestu beharrekoa zera da, ikasle batek beti entzulearen papera hartzea eta beste batek berriz, beti hitza hartzea, edota beste modu batera esanda, ikasle bat beti tutore lanetan jartzea eta bestea beti tutorizatua izatea, edo bat beti laguntzaile izatea eta bestea lagundutakoa.

#### JARDUERA BURUTZEKO:

- Utzi hurrei denbora pixka bat orrialde horretan dauden elementu guztiei behatzeko. Horretarako, adierazi, gauza asko (materialak, globoak, proiektuaren ikurra, Maddalenen eta Ferminen makina, beste haur batzuek egindako makinak) daudela orrialde horretan, eta arreta jartzen saiatu behar dutela.
- Ondoren, gidatutako behaketa egingo dugu. Ez dago ordena zehatzik behaketa egiteko, proiektuaren ikurretik has gaitzke, baina baita beste irudietatik ere (denboraren makinak irudikatzeak aukera dute orain), globoetako mezuak bukaerarako utzita, adibidez.
- Proiektua unitate guztietan "bonbillaren" ikonoarekin aurkeztuko dugu; hurrengo unitateetan hainbat orrialdetan azalduko zaigu bonbilla txiki bat ere, proiektuari egin diezazkiokegun ekarpenak gogorarazteko. Irudiarik behatzeko eskatuko diegu (proiektatzeko irudia irakaslearen material osagarrian daukazue). Komikietan eta beste hainbat testutan ere, bonbillaren irudiak "Ideia bat daukat" adierazten duela komunikatuko diegu ikasleei. Hau da, orrialde horretan proposatzen digutena egiteko, guztion ideiak behar-beharrezkoak izango ditugula adieraziko diegu. Ideia guztiak kontutan hartu beharraz ere hitz egingo dugu (aurrerago erabakiak nola hartu eta beste planteatuko dugu). Beraz, gure ideiak sortzeko makina, burmuina, garuna, martxan jarri beharko dugula adieraziko diegu.
- Aurreko orrialdeetan, Maddalenen eta Ferminen denboraren makina ikusi dugu, baina orrialde honetan beste era batera egindakoak ikusten dira. Nola eraikiko dugu gurea? Pentsatzen hasiko gara poliki-poliki.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

12. JARDUERA	ARTELANA
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p> <p>3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozaten du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.</p> <p>3.2.10 Mugimenduak inprobisatzen ditu, hainbat soinu-estimuluri erantzuteko.</p> <p>3.3.3. Arte-ekoizpenenekiko errespetua adierazten du, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 11. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Gure makina sortu behar dugu eta oraintxe dugu ideiak sortzeko unea. Agian, artelanetan ere inspiratu gaitzke, artistek oso ideia bitxiak eta originalak izaten baitituzte...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Orrialdea behatzeko aukera emango diegu haurrei (banaka/binaka).</li> <li>- Ondoren, talde handiko behaketa bideratuko dugu, lehenik eta behin beste konstantea adierazten duen ikurraren gainean: "Artelana". Ikasleek Haur Hezkuntzan zehar hainbat artelanekin harremana izateko aukera izan dutenez, gaiari buruzko aurre-ezagutzak aktibatzeke momentua da. Beraz, taldeko elkarrizketa labur bat gara dezakegu (ikus, taldeko elkarrizketari dagokion dokumentua bigarren zehaztapen-mailan); lehenbizi haurrak launaka jarri ideiak gogoratzeko eta, gero, talde handian adierazi, adibidez: <ul style="list-style-type: none"> <li><i>Pentsatu eta gogoratu: zer dira artelanak? Artelanik ezagutzen al duzue? Zer egiten zenuten Urtxintxan artelanak ikusi eta gero? Zuek egiten al zenuten artelanik?</i></li> </ul> </li> <li>- Gero, liburuko artelanei eta izenburuei erreparatuko diegu. <i>Zergatik jarri ote dute makina bat?</i></li> </ul> <p>Bestalde, artelanari eta artistari buruzko argibideak kontuan hartzekoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Orinal Iturria</i> eta <i>Beirazko plaka birakaria</i> artelanak Marcel DUCHAMPen bi lan ezagun eta esanguratsu dira. Artista horrek esaten zuen moduan, edozein gauzari asmo estetiko batekin bere funtzioa deskontestualizatuz gero, artelan bihur daiteke. Beirazko plaka birakariak, makinaren ideia gehiago hurbiltzen gaitu eta planteatu dezakegu edozein objektu beste era batera erabilia gure, makinako zati ere izan daitekeela. Adibidez: komuneko paper-tutuak, kataloxak izan daitezke; kakao potearen tapa, abiadura botoia; kartoizko erretilua, ordenagailuaren pantaila...</li> <li>• Autorearen biografiaren laburpen bat ere badaukazue. Haurrek guztia ulertuko ez badute ere, irakur iezaiezue; horrela, poliki-poliki, testu mota horren ezaugarri batzuk ezagutzen hasiko dira. Behaketa txiki bat ere bidera dezakezue. <i>Nongoa zen?</i></li> <li>• Artearen txokoa muntatzen has gaitzke. Artelanen irudiak, datuak eta artistaren biografiak, hala nola, artelanak gogora ekar dakigukeen edozein erlazio ere jar dezakegu.</li> </ul> <p>Marcel Duchampek egindako artelanak ikusi ditugu. Gure gorputza ere artelana izan daiteke, jolas honen bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Musika oso lasaia ipiniko dugu, eta gela erdia musikaren arabera mugituko da, gorputz guztia makina bat balitz bezala mugituz.</li> <li>• Halako batean, musika gelditu egingo da, eta haur bakoitza, une horretan egiten ari den mugimendua mantenduz, gelditu egingo da, eskultura bat izango balitz bezala kokatuz.</li> <li>• Gelakideen beste erdia besteen lanari behatzen egongo dira. Nahi izanez gero, jolas horri bi arau jar diezazkiokegu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugimenduak oso lasaia izango dira.</li> <li>- Musika gelditzen denean geldirik egongo gara, musika berriro martxan jarri arte.</li> </ul> </li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

13. JARDUERA	<b>IPUINARI BUELTAKA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>eraikitzeke ere.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekin erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Binaka (edo launaka)/Bakarka
MATERIALA	Irakurgaiak, 16-17. or.; Lan-koadernoak, 10. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Testu lantzean egingo dugun moduan, ulermen- zein ekoizpen-estrategiak lantzeko, irakurritakoaren ulermenari begira, hiru une bereziko ditugu: aurrekoa, tartekoa eta amaiera. Ulermenak zerikusi zuzena du kodea deszifratzearekin, baita irakurle/entzuleak dituen hainbat estrategia multzorekin ere; hala nola: aurretiazko ezagutza, egoera komunikatiboaren ezagutza, erlazionatzeko eta inferitzeko gaitasuna, emozioak, beharrak, irakurritakoaz egiten den erabilera, aplikazio- eta asimilazio-lanak... (ikus, taldeko elkarrizketari dagokion dokumentua bigarren zehaztapen-mailan)</p> <p><b>Irakurri aurretik</b> (Irakurgaiak, 16-17. orrialdeak; lan-koadernoak 10. orrialdea, hautazkoa)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Guk gure makina asmatu eta eraiki behar dugu. Bada, ezagutzen dut asmatzaile xeble baten eta neska puzkerti baten ipuina. <ul style="list-style-type: none"> <li><i>- Gustuko al dituzue ipuinak? Zein ipuin duzue gustuko?</i></li> <li><i>- Gure egunerokotasunean eta ipuinetan gauza berak gertatzen al dira? Adibidez, animaliek hitz egiten al dute? Ba al dago sorginik?</i></li> </ul> </li> </ul> <p>Hori da bada, ipuinen mundu zoragarriari esker lortzen duguna, edozein gauza posible da! Gure imajinazioak eta asmatzeko gaitasunak ez du mugarik ipuinetan!</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleak, Irakurgaiak liburutik (16-17. or.) ipuinen mundu magikoa adierazten duen olerkia irakurriko du. Olerki hori Pako Ibañez abeslariak gaztelaniaz erabiltzen zuen musika berberarekin ere kanta daiteke.</li> <li>Olerkia arbelean idatz daiteke, eta denon artean abestuz irakurri. Errimari behatzeko aukera ere eskaintzen digu.</li> <li>Ipuinetan horrelako gauzak gertatzen ote diren berriz galdetu eta eztabaidatu ondoren, mundua alderantziz jartzera jolas dezakegu, edota gezurak asmatzera ere bai. Horretarako, haur bakoitzak ezinezkoa den, ohikoa denaren alderantzizkoa den edo gezur galanta den zerbait pentsatu eta asmatu beharko du, eta guztioi kontatu. <ul style="list-style-type: none"> <li><i>- Gure imajinazioa martxan jarriko dugu eta ea zer gezur edo ezinezko pentsatzen dugun!</i></li> </ul> </li> <li>Utzi tarte haurrei pentsatzeko, edota nahi izanez gero, hurrengo egunerako pentsatzeko eskatu. Beste une batean egingo dugu bateratze-lana gezurrak edo astakeriak aztertzeke.</li> <li>(Hautazko jarduerak Lan-koadernoak, 10. orrialdea) Ipuinei buruz ari garela, lan-koadernoan, txikitan entzundako lau ipuinen izenburuak eta bakoitzarekin erlazionatzeko balio izango dien esalditxo bat aurkituko dute. Talde handian, irakurketa partekatuz, esaldiak irakurri ondoren, ipuinen izenburu batekin erlazionatuko dute. Adibidez: "Txanogorritxo" eta "Soingaineko gorria du".</li> <li>Horretarako, hitz gakoak behaketa landu dezakegu; adibidez: Txanogorritxo hitzean, TXA eta NO silabei behatu; edota GORRI identifikatu beste txarteleko, "soingaineko GORRIa du" jartzen duen horretan GORRI hitza biribilduz. Laburbilduz, izenburuek eta esaldiek ematen duten informazioa irakurriko diegu ikasleei, eta gauza bakoitza non jartzen duen jakiteko "arrastoak" identifikatuz eta nabarmenduz (azpimarratu, kolore berarekin biribildu...). Beste aukera, nahi izanez gero, aurrekoa jorratu ondoren, irakasleak txartelak prestatzea eta lau taldeetan banatzea izango litzateke. Talde handian egindako behaketa euren talde txikian, arrazoituz eta arrastoak erabiliz, egin dezakete, gero lan-koadernoko jarduerak egiteko.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	



14. JARDUERA	IPUINA IRAKURRI BITARTEAN, IPUINA IRAKURRI ONDOREN
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.5</b> Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p><b>1.6</b> Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</p> <p><b>1.13</b> Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentziarikiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarriko ezaugarriak hautemanen.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak, 18-21. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Irakasleak ipuina irakurriko die ikasleei (irakurketa ozena eta moldatua); irakurketa egokiaren eredu eskainiko die, ikaslearen ahalbideetatik at zabalduko du testuaren trataera (generoari buruzko hausnarketa, hiztegia argitzea, arreta...). Ikaslea hainbat testu motarekin harremanetan jarriko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Beno, irakurriko al dizuet, asmatzaile xeble horren ipuina?</i> Irakasleak ipuina irakurriko du. Ipuinaren bi bertsio dauzkagu: gida honen eranskinean luzea, irakurgaien liburuan laburra. Lehenbizi bertsio luzea irakurriko die irakasleak, eta hurrek entzun eta irudiak ikusi besterik ez dute egingo.</li> </ul> <p><b>Irakurri bitartean</b> Ipuinaren izenburutik hasiko gara.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>“Zalantzak sortzeko makina”. Zer dira zalantzak? Izaten al dituzue zalantzak? Noiz? Nolakoak? Gustatzen al zaizue zalantzak edukitzea?</i></li> <li>• <i>Ea zer dioen ipuinak.</i> Irakasleak irakurriko du ipuina haurrak bere inguruan dituela eta irakurtzen ari den bitartean, tarteka begiak altxatu eta hurrei (guztiei) begiratuko die, haien arreta eta ulermena ziurtatzeko. <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Hara! Beti “zergatik” galdetzen zuen makinak!</i></li> <li>- <i>Ados al zaudete? Errazagoa al da “zergatik” galdetzea erantzutea baino? Egingo al dugu proba?</i></li> <li>- <i>Guk ere burla egiten al diegu lagunei huskeriengatik?</i></li> <li>- <i>Zer iruditzen zaizue On Joseperen makina, ederra ala ezertarako balio ez duena?</i> (Besterik gabe, besoak altxatuta erantzun dezakete).</li> </ul> </li> </ul> <p><b>Ipuina aitzakia (irakurri ondoren).</b> Galderak egitea ona dela eta gure galderen edota zalantzen bilduma egitea proposatuko dugu. Galderak edo zalantzak hainbat izaeratakoak izatea bultzatuko dugu: erabakiak hartzeko zalantzak, afektiboak, zientziaren inguruak... edozein arlo da baliagarria. Egunero/astean egun jakin batzuetan/batean, txandaka, haur batek galdera bat edo zalantza bat plazaratuko du, eta guztion lana izango da galdera horren inguruan pentsatzea eta erantzun posibleak ematea.</p> <p>Tresnatxo bat sortuko dugu horretarako: hiru zutabeko taula izan daiteke; lehenengo zutabearen galdera egin duen haurren izena (eta deitura) idazteko ditugu, bigarrenean, egin duen galdera labur adierazita, hirugarrenean erantzunik lortu al dugun bai ala ez. Ez da derrigorrez erantzuna jakin behar, ez da derrigorrez mementoan erantzun behar. Ez badakigu, jakin dezakeenari galdetuko diogu: etxean, lagunartean, beste irakasleei... (<i>“Ikasteko gogoak sortzeko lehenik, arazoak sortu behar dira. Sakonean egiten dugunari zentzua ematen diona galdera bati erantzutea da eta ikasleak horrela garatzen du ikasteko gogoak, berak aurkitu duen arazoa ebatziz eta berak egin duen galderari erantzunez. Erantzunak guk ematen badizkiogu, ez du inoiz zeri erantzuten dion ikusiko eta ez du ikasteko gogorik izango. Eskolaren helburua galderak sorraraztea da. Haurrak galdera du abiapuntua, motorra. Meirieu”</i>) Jarduera hau egiten badugu (hartu horretarako denbora aste batzuetan zehar), seguru asko bat etorriko gara On Joseperekin, zalantzak jakintsuago egiten gaituela frogatuta geratuko zaigu. Galdetu hurrei ea zer dioten:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Ados al zaudete On Joseperekin zalantzak jakintsuago egiten gaituela esaten duenean? Zer ikasi dugu ipuin honetatik? Gure galderen ondorioz asko ikasi al dugu?</i></li> </ul> <p>Ikasleei adierazi, liburuan ipuina pixka bat motzago idatzita dagoela eta beraiekin batera (lehen aldiz, irakasleak bakarrik, jakina) irakurriko duzuela hainbat aldiz. Bertsio luzea landu duzuen egun berean ez da komeni irakurketa laburrak egiten hastea, hurrek arreta galduko baitute. Hurrengo egunetik hasi, eta, hainbat egunetan, irakasleak irakurriko du. Ea haurrak poliki-poliki jarraitzen hasten diren. Beha diezaiokezue orrialde bakoitzaren hasieran zer jartzen duenari; etxera ere eraman dezakete ipuina, gurasoek irakur diezaieten.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

15. JARDUERA	<b>MAKINA IMAJINATZEN ETA IZENAK ASMATZEN. MARRAZKIA ETA IZEN POSIBLEAK. (IDEIEN SORKUNTZA)</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b></p> <p><b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>1.8.2 Emandako komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera edukiak adierazten ditu.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 12. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Lanak era kooperatiboan egiteak ezinbesteko berezitasun bat du: nahi eta nahi ez, taldekide bakoitzak bere hausnarketa eta ekarpena egin beharra dauka taldeari eskaintzeko. Norbanakoak, bere ekarpena egiteko ardurua dauka. Horretarako, tartea eskaini beharra daukagu. Planifikazio garai hau izan daiteke une aproposa horretarako.</p> <p>Motibaziorako eta ideiak sortzeko hainbat elementu eta gai jorratu ditugu dagoeneko. Beraz, orain (edota hurrengo egunerako pentsatzen joateko esanez), bakoitzak makina nola eta zerekin egin daitekeen pentsatu eta marrazki batez irudikatuko du. Nahi izanez gero, lehen zirriborroa orri zuri batean bakarka egiteko eskatuko diegu ikasleei. Ondoren, binaka adostuz, azken diseinua bakoitzak bere liburuan adierazteko eskatuko diegu.</p> <p>Liburuko 8. orrialdean, makina krokis moduan ikusteko aukera izan dute ikasleek, osagaiak eta elementuak geziz eta dagokien izenez osatuta. Eskatu hurrei (ere duari behatu berriz ere) eurek ere, beren marrazkia krokis moduan osatzeko.</p> <p>Beste hainbeste eskatuko diegu makinaren izen posiblearekin. Bakoitzak bereak proposatu eta idatzi ondoren (esan oso inportantea dela idatzitakoa gogoratzea), izen guztien artean zerrenda bat osatuko dugu. Irakasleak egingo du idazkari lana eta irakasleak haur batek esandakoa idazten duenean, haurari eskatuko dio bi idatziak konparatzeko eta desberdintasunak ikusten baditu auto-zuzenketa egiteko. Zerrenda gelako horman kokatuko dugu, eta makina bukatzen dugunean erabakiko dugu zer izen jarri, eta baita nola erabakiko dugun ere (bozketa, zozketa...); iritzia emateko garaian irizpideak argitzea komeni da: itxurak iradokitzen diguna, koloreak iradokitzen diguna, guztion artean egindako lana dela adieraziko du izenak, taldearen izenarekin erlazioa izatea komeni da, grazia pixka bat ematea...</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

16. JARDUERA	<b>ARDUREN BANAKETA: ZER ETA NORK EKARRI? (PLANIFIKAZIOA)</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b></p> <p><b>4.2 Hainbat testuingurutan lanaren plangintza egitea, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>1.8.2 Emandako komunikazio-egoeraren ezaugarrien araberrako edukiak adierazten ditu.</p> <p>4.2.1 Hainbat testuingurutan lanaren ekoizpen-prozesuaren antolaketa mailakatu, prozesua egiteko beharrezko baliabideen aurreikuspena, eta materialen eta tresnen aukeren azterketa egiteko gai da hasi aurretik.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Talde txikian
MATERIALA	Liburua, 13. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Bakoitzak bere makina irudikatu ondoren, baliabideen azterketa egiteko unea iritsi zaigu. <i>Zer ekar dezakegu? Nondik lor dezakegu? Nork ekar dezake?</i></p> <p>Aurretik euren makinetan jarri nahiko litzuketen elementuak (bolantea, antena, pantaila, argia, teklatura, palanka, kutxa, katalogak...) krokisean marraztu eta izendatu dituztenez, horiek nola lortu hitz egingo dugu. Gerta dakiguke norbaitek, adibidez, bolantea ekartzea; baina kontrakoa ere gerta daiteke: bolantea inork ezin ekartzea. Orduan, bolantea egiteko zer erabili dezakegun pentsatu beharko dugu. Aukera ona dugu birziklatzeko materiala proposatzeko.</p> <p>Makinaren osagaiak nola eskuratu edota eraiki hitz egin ondoren, makina beraren egitura eta hura apaintzeko zer ekar dezakegun planteatuko dugu (berriz ere, birziklatzea aipatuko dugu): arrautza-kutxak, plastikozko botilak, botoiak, tapak, gozoki-paperak...</p> <p>Planifikazio garaian garrantzitsua da tresnak (ardurak banatzeko zerrendak, erabakitakoa jasotzeko aktak...) erabiltzen ohitzea. Gelan aurreikusi eta erabakitakoa ezagutu gabe, zaila da lan hori egiteko dinamika jakin bat proposatzea. Bestalde, une honetan aurreikus daitekeena, prozesua planifikatzerakoan, hau da, 17. jardueran, zertxobait alda daiteke. Gainera, agian, liburuko fitxa, talde guztiaren ekarpenak biltzeko eskas samarra gerta dakiguke.</p> <p>Aukera bat, gehienez ere seiko taldeak antolatu eta talde bakoitzari hitz egin dugunetik atal baten ardura ematea izango litzateke. Taldekideek beren esku geratu diren baliabideen zerrenda osatu beharko dute. Horretarako, txandaka, ikasle bakoitzak bere izena eta berak ekarri behar duena idatziko du. Une horretan, guztiek guztiei lagundu beharko diete. Bakoitzak etxera eramango duen zerrenda ondo idatzita eraman beharko duenez, elkarren artean zuzentzera animatuko ditugu. Zuzenketa ahoz egin beharko diote idazten ari den ikaskideari, edota idatzi duenari, modu egokian, eta guztiak bat datozenean ondo idatzita dagoela iruditzen zaiela. Lehenbiziko kideak idatzitakoa beste guztiek kopiauko dute beren liburuan. Horrela, zerrenda osoa osatu arte.</p> <p>Irakasleak talde bakoitzak idatzi duena gelan denen bistan jarriko du "zerrenda handian"</p> <p>Baliabideen lorpenerako, seguru asko, irakasleari dezente parte hartzea egokituko zaio.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

17. JARDUERA	<b>GURE MAKINA ERAIKITZEN (BERRIKUNTZA/EGITEA)</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.</b></p> <p><b>2.8 Material, substantzia eta makina sinpleekin esperimendu errazak egitea autonomiaz, bai eta eguneroko bizitzako objektuak muntatzea eta desmuntatzea ere, eta horiek nola funtzionatzen duten eta modu egokian nola erabili deskribatzea.</b></p> <p><b>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</b></p> <p><b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b></p> <p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.11.1 Eskola-inguruko komunikazio-eremuetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan euskara erabiltzen du.</p> <p>2.8.1 Eguneroko bizitzako material eta substantzien ezaugarri fisikoak (kolorea, usaina, egitura, pisua/masa, gogortasuna, beste elementuekin konbinatzeko/nahasteko gaitasuna eta abar) antzematen ditu.</p> <p>2.8.2 Behaketak zein esperimenduak (zientziakoak, zein arte mundukoak) egiteko oinarritzko tresnak eta materialak ezagutzen ditu eta badaki horiek erabiltzen.</p> <p>2.9.2 Erregistroak egiten ditu; grafiko errazak, krokis sinpleak egin eta interpretatzen ditu.</p> <p>3.4.6 Objektuen manipulazioa eta transformazioa egiten du, beste testuinguru batzuetan objektu horiek dituzten zenbait erabilera eta adierazpen-aukera aztertzeko. Birziklapen-irizpideak ere kontuan hartzen ditu.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p> <p>4.1.2 Ideiak, sentimenduak eta proposamenak trukutzen ditu.</p> <p>4.1.3 Taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen da lankidetzan.</p> <p>4.1.4 Beste pertsona batzuek emandako azalpenak balioesten ditu.</p> <p>4.1.8. Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p> <p>4.1.10. Ahal duen neurrian laguntzen die gainerakoei.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Talde txikian txandakatuz
MATERIALA	Etxetik ekarritako materialak eta ikastolako bestelako baliabideak (kolak, zinta eransgarria, margoak...)
<b>AZALPENA</b>	
<p>Makina eraikitzea prozesu bat da eta prozesu guztiek dituzte hainbat urrats. Urrats horiek zein ordenatan egin eta urrats bakoitzaren ardura eta zereginak nork egingo dituen hitz egitea eta planifikatzea garrantzitsua da, batez ere, talde osoaren arteko lana izanik, guztien partaidetza eta erantzukizuna bermatu behar badugu. Erabaki horiek ere akta batean edota ordenaren eta partaideen zerrenda batean jaso ditzakezue eta denon bistan jarri.</p> <p>Pentsatu duzuenaren eta lortu dituzuen materialen ildotik, beharrezkoa da haurrekin partekatu aurretik irakasleak tokiaren, denboraren eta partaidetzaren kudeaketari buruz aurrez ideia garbiak edukitzea. Adibidez, makina egiteko bizpahiru egun aurrekusi badituzue, egunero ordu/saioak zehaztu beharko dituzue: taldeko haurrak horren arabera banatu, zereginak zehaztu...</p> <p>Kokatu gelan, guztien bistan, haurrek (eta irakasleak) ekarri dituzten materialak. Nahi izanez gero, bakoitzak ekarri duena zertarako aurrekusi zen adieraz dezake. Irakasleak, aurrekusi duena haurrekin partekatuz, prozesua eta arduren taldekatzea azalduko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekin. Desbideratzeak zuzendu, arazoei taldean aurre egin, konponbideak bilatu eta komunikatu...</li> <li>• Amaitzean, argazkia aterako diogu.</li> </ul> <p>Bukatzeko, zer izen jarri eta nola erabaki adostuko dugu (bozketa/zozketa); iritzia emateko garaian irizpideak argitzea komeni da: itxurak iradokitzen diguna, koloreak iradokitzen diguna, guztion artean egindako lana dela adieraziko du izenak, taldearen izenarekin erlazioa izatea komeni da, grazia pixka bat ematea...</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

18. JARDUERA	<b>GURE MAKINA... MARTXAN!</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<b>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</b>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
3.2.10 Mugimenduak inprobisatzen ditu, hainbat soinu-estimuluri erantzuteko.	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian
MATERIALA	
<b>AZALPENA</b>	
Makina bat asmatu eta sortu dugunez, orain nola mugi daitekeen asmatu behar dugu. Mugimenduak eta horiei laguntzeko soinuak pentsatu ondoren, ikasleak binaka edo hirunaka jar daitezela martxan.	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

19. JARDUERA	<b>MAKINAREN ARGAZKIA ETA ARGAZKI OINA (KOMUNIKAZIOA)</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 14. or.
<b>AZALPENA</b>	
Lehen esan dugun bezala, orrialde honi ekin aurretik, makinaren argazkia prest eduki beharko dugu. Izena lehenago erabaki ez badugu, oraintxe dugu unea.	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izena beren erara kodetuz idatziko dute, argazki-oin bezala. Perpausa baten barruan idatzi behar badute, aurretik hitz egitea komeni da. Adibidez: GURE MAKINA ... DEITZEN DA. Nola nahi ere, espazioa izango da kasu askotan horretarako arazo.</li> <li>• Argazkirik ezean, marrazkia makinari behatuz ere egin dezakete.</li> <li>• Gure makina ikustera inguruko ikasleak edota familiak gonbida ditzakegu. Horretarako, gonbidapen-testua guztion artean erabakiko dugu (planifikazioa) eta behar adina kopia nola egin pentsatuko dugu: bakoitzak bere etxerako bat, kartelen bat ikastolako sarreran jarri, beste geletara gonbiteak banatu...</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

20. JARDUERA	<b>BIDAIEN BERTSOA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p> <p><b>1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeke eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.</b></p> <p><b>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.12.1 Literatura izaeradun testu edo testu zati motzak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradiziozkoak nahiz gaur egungoak, buruz ikasi eta ulertzeko moduan errezitatzen ditu.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Gela erdia/Launaka/Zortzinaka
MATERIALA	Irakurgaiak, 22. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>Mikel Mendizabalek egindako bertsoa lehen bidaiaren ingurukoa da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lehenbizi lehen koplak abestu eta ikasiko egingo dugu, oinen behaketa eginez. "Maritxu nora zoaz" doinua proposatu da proposatuko dugun jolasa egiteko.</li> <li>Gauza bera egingo dugu bigarren bertsoarekin.</li> <li>Utzi arbelean idatzita, edo proiektatuta, bi zatiak ondo bereizten ditugula.</li> <li>Gela bi zatitan banatuko dugu eta Maritxu eta Bartoloren abestiarekin bezala, gelaren erdiak lehen bertsoa (lau lerro) arbeletik "irakurriz" abestuko du (era horretan soinua eta idatzia erlazionatzen hasiko da). Gelaren beste erdiak azken beste bertsoarekin erantzungo diete. Gero, alderantziz egingo dute; hau da, lehen zatia abestu dutenek bigarrena abestuko dute eta lehenago bigarrena abestu dutenek lehenbizikoa.</li> <li>Irakasleak, aurretik, koplen lerroetako bakoitza txartel batean idatzita edukiko du (zortzi lerro ditugunez, hainbat kopia atera beharko dira haur denei banatzeko).</li> <li>Jolasarekin hasi aurretik, haurrek irakurtzen ez dakitenez, bertsoaren hasieran ditugun "arrastoei" behatzen eta horren arabera hautatzen irakatsiko diegu: <ul style="list-style-type: none"> <li>EZAGUTZERA    Soinua E. Non da E?</li> <li>BIZILEKU        Soinua BI. Non daukagu BI?</li> <li>ORAINGO        Soinua O. Zein lerro hasten da O letraz?</li> <li>HEMENGO        Mutua(H)! Zer du atzetik? E... M...</li> </ul> </li> <li>Haurrak launaka bildu eta bakoitzari bertso zati bat eman. Haur bakoitzak tokatu zaiona aztertu beharko du eta horren arabera erabakiko du laukote horretan noiz hasi behar duen kantatzen... Lehen lerroa duena hasiko da, jakina.</li> <li>Gauza bera egingo dugu zortzinaka elkartuta, bi koplekin. Bukatzeko, nahi badugu, zortziko talde horretan lehen lauak elkartuz eta bigarren lauak elkartuz, Maritxu eta Bartoloren moduan, txandaka jardun daitezke.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

21. JARDUERA	<b>BUELTAKO KOMIKIA</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Liburua, 15. or.; Irakurgaiak, 23. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>(Ikus, taldeko elkarrizketari dagokion dokumentua bigarren zehaztapen-mailan)</p> <p>Hemendik aurrera, unitate guztietan, gure istorioaren jarraipena ziurtatuko diguten hiru orrialde daude: bi, unitatearen hasieran, eta beste bat unitatearen bukaera aldera.</p> <p>Liburuko orrialde horretan Fermin haserre azaltzen zaigu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Orrialde hori, hasierako komikiaren antzera landuko dugu (ikus proiektatzeko irakaslearen material osagarria).</li> <li>• Egoera egokia beraz, Tough-en hizkuntza-funtzioen artean sentimenduen proiektzioa lantzeko, kasu honetan, frustrazioarena eta aintzat ez hartua izatearen ideia (<i>zer sentitzen dute?, zuk zer sentituko zenuke?, noiz sentitzen zara haserre? Adibidez...</i>). Irakasleek ez badituzte horrelako egoerak asmatzen edo deskribatzen, irakasleak jarri beharko ditu adibideak. Bestalde, era horretako sentimendu ezkorrak jasaten ikasi beharra ere aipatuko dugu, beti ezin baitugu guk nahi duguna eta nahi dugun moduan lortu.</li> </ul> <p>Komikiko informazioa osatzeko, Irakurgaiak liburuko 23. orrialdeko berria irakurriko du irakasleak, azken paragrafoan jartzen duenari erreparatu. Oraingoan ere, irakasleak irakurriko du (irakurketa ozena eta moldatua); irakurketa egokiaren eredu eskainiko die, ikaslearen ahalbideetatik at zabalduko du testuaren trataera (generoari buruzko hausnarketa, hiztegia argitzea, arreta...). Irakaslea hainbat testu motarekin harremanetan jarriko da. Bestalde, hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia interpretatzen hasteko, albisteen egituraren behaketa bideratuko dugu. Irakurgaietako testua erabiltzeaz gain, komeni da egiazko berriak eskuratzea, eta egitura aldetik dituzten ezaugarri komunetan arreta jartzea: irudia, titularrak, azpititularrak, berriaren garapenak dioena...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Komikiak eta baita egunkariko berriak ere, arazotxo bat plantatzen duenez, lagungarri gerta dakiguke problemen ebazpenerako, jada, Haur Hezkuntzan, Urtxintxa proiektuaren bidez jorrotutako <b>IDEAL</b> prozeduran trebatzen hastea: arazoa <b>Identifikatu</b> (Fermin eta Maddalen haserre daude); <b>Definitu</b> (zergatia ezagutu, prentsan ez dietela sinetsi, alegia); konponketarako <b>Estrategiak bilatu</b>, (Fermin eta Maddalen pozik egon daitezzen zer egin daitekeen pentsatu; <b>eta hori eginez gero (aritu) eta gerta daitekeena</b> (lorpenak) <b>ebalatu</b>.</li> </ul> <p>Edozein problemaren aurrean, lehenik eta behin, irakasleak barneratu beharko ditu urrats horiek eta aurreraxeago, poliki-poliki, haurrei erakutsi pausoak (identifikatu, definitu, konponbiderako estrategiak bilatu, aritu eta ebalatu). Aipagarria da bestalde, problemen ebazpenerako prozedura horrek, ekintzaitza urratsekin daukan lotura.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

22. JARDUERA	<b>EGINDAKOA BERRIKUSTEN (BALORAZIOA)</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<p><b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b></p> <p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...)</b> deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p><b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarriko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b></p>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzietan erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarriko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>1.8.2 Emandako komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera edukiak adierazten ditu.</p>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Liburua, 16. or.
<b>AZALPENA</b>	
<p>(Ikus, taldeko elkarrizketari dagokion dokumentua bigarren zehaztapen-mailan).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Talde handian, unitateak iraun duen bitartean, egin ditugun gauzak gogora ekarriko ditugu. Horietako asko liburuan bertan edota gelan bistan daudenez, ikasleei zer behatu edo zertan pentsa dezaketean adierazi ondoren, denbora emango diegu makinari eta liburuari lasai begira diezaieten.</li> <li>Lehen atala (egileen iritzia) elkarrekin irakurri. Ikasleekin batera jardueraren nondik norakoak aztertuko ditugu. Lehen bi puntuetako marrazkiek (ikonoek) adierazten dutenari behatu, eta interpretatu; zer margotu behar duten argitu. Ondoren, hirugarren, laugarren eta bosgarren puntuetan idatziz erantzun behar dutela adieraziko diegu, baina lehenbizi galdera bakoitzean zer jartzen duen guztion artean deskodetuko dugu.</li> <li>Behin hiru galderak deskodetuta, berriro lehenbizikoari egingo diegu so, eta ikasle bakoitzak pentsatzeko denbora labur bat har dezala. Gero, zer idatzi badakitenez beren moduan idatzeko eskatuko diegu, horretarako tartetxo bat eskainiz (hitz bakar batez erantzutea nahi badugu, tarte laburra; eta perpausa osatzeko eskatzeko moduan bagaude luzexegoa). Bukatutakoan, erreparatzeko eskatu eta ondoren, irakasleak bukatu dutela jakin dezan, liburuari buelta eman diezaioke, bigarren galderari heltzeko.</li> <li>Bigarren eta hirugarren galderekin prozedura bera erabil dezakegu.</li> <li>Erantzunak partekatzeko erronda bat irekiko dugu, bakoitzak labur zer adierazi duen esateko aukera eskainiz. Irakasleak hurrek esandakoari buruz galderak egin ditzake, era horretan, azalpen zehatzak eskatuz, edota informazio gehiago eskatuz (<i>zergatik diozu hori?...</i>).</li> <li>Bigarren atalaren (ETXEKOEN IRITZIA) behaketan egingo dugu gero. Euskaraz ez dakiten gurasoak baldi baditugu, bi galderak ondo argituko ditugu, hurrek etxekoei zeregina adieraz diezaieten. Gaztelaniazko itzulpena irakaslearen material osagarrian daukazu, baina, seguru asko, hori ez da nahikoa izango gure geletako hizkuntza aniztasunaren aurrean. Garrantzitsua da, baita ere, etxekoen erantzuna haurrak oso ondo ezagutzea, berak egin beharko baitu (hainbat hizkuntzen kasuan) itzultzaile lana.</li> <li>Aurretik esanda badago ere, garrantzi handikoa da guraso bileran gurasoei adieraztea atal horren ezaugarriak, galderei erantzuteko modua eta liburua ikastolara itzultzeko beharra. Hala ere, sorpresak izan ditzakegu eta zenbait gurasok liburuan bertan adierazteko egokiak ez diren gauzak idatz ditzakete; adibidez: <i>Makina oso polita da, baina gure haurrak oraindik ere E letra alderantziz idazten du</i>. Oso garrantzitsua da, beraz, kezka horiek jasoko direla eta erantzungo zaiela, familiei adieraztea. Halaber adierazi, inondik inora liburua ez dela hori komunikatzeko tokia.</li> <li>Gurasoei liburuxka bidaltzeaz gain, gure makina ikustera nor gonbidatu pentsatzeko garaia ere izan daiteke. Erabakiaren arabera, ahozko zein idatzizko gonbidapena talde handian adostuko dugu, eta pentsatutako moduan (ahoz/idatziz) komunikatuko dugu.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	



23. JARDUERA	<b>ETXEKOENTZAKO SORPRESA PRESTATZEN</b>
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
3.4.2 Nahita egindako trazuaren eta nahita egin gabekoaren adierazpen-aukerak probatzen ditu.	
3.4.3 Hainbat material motatan eta hainbat euskarritan nahasteak eta kolore orbanak egitea probatzen du.	
3.4.8 Materialak manipulaturaz eta aztertuz gozatzen du.	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka
MATERIALA	
<b>AZALPENA</b>	
<p>Arestian aipatu dugun moduan, eta hautazko jarduera gisa, etxekoei sorpresa bat, oparitxo bat, presta diezaiekegu. Zer gauza politagoa, guk egin dugun unitatea, denboraren makinaren argazkia barne, oparitzea baino.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hurrei unitatea opari-paperean bilduta etxera eramatea proposatuko diegu.</li> <li>• Biltzeko papera nola egin dezakegun galdetuko diegu. Ahal dela, erostea saihestuko dugu, geuk egindakoa ederragoa baita, balore handiagokoa.</li> <li>• Biltzeko papera tenperekin apain dezakegu.</li> <li>• Paketeak egiten ikasiko dugu. Irakasleak eredu eskainiko du, eta irakaslea egiten ari den bitartean, hurrek pausoz pauso errepikatuko dute prozesua.</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

# 1. eranskina. Gaztelania: CURROREN AURKEZPENA

... JARDUERA	¡HOLA! ME LLAMO CURRO (JE M'APELLE PIERRE(?))
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian/Bakarka
MATERIALA	Eranskina; Curroren irudia zuri-beltzean
<b>AZALPENA</b>	
<p>Jarduera honekin emango diogu hasiera gaztelania/frantsesa poliki-poliki lantzeko proposamenari (beharrezko jotzen duzuen tokietan, jakina). Urdintxoren lehengusua aurkeztuko dugu eta berak ez daki euskaraz. Gida honen eranskinean zuri-beltzez guakamaioaren profila aurkituko duzue. Urdinez margotzen badugu Urdintxo izango da, hau da, Maddalenen eta Ferminen laguna. Gorritz margotzen badugu berriz, Reddy (Gorritxo) Ingalaterran bizi den Urdintxoren lehengusua. Eta horiz margotzen badugu "Curro " edota "Pierre(?)" (beharren arabera) gaztelaniaz edota frantsesez hitz egiten duen Urdintxoren beste lehengusua.</p> <p>Irudi hori makilatxo bat jarrita, animatu dezakegu. Nahi izanez gero, haur bakoitzak berea egin dezake. Gelarako erabiliko duguna gogorra eta plastifikatuta izatea komeni da.</p> <p>Aurkezpena bizia izan dadin, sorpresa modura egin dezakegu. Haurrak gelara sartu aurretik, gure panpina gelako txoko batean jarriko dugu, nabarmen ikusten dela. Sartzerakoan, haurrak konturatuko dira eta nor ote den galdetuko dio irakasleak. Baina Currok ez daki euskaraz, erdalduna da; beraz, erdaraz hitz egingo diogu. Beste formula bat Urdintxok Curro aurkeztea izan daiteke. Horretarako, bi panpina beharko dituzue. Hirugarren formula bat ere egon daiteke: haurrak gelan sartzen ari diren neurrian Currok ongietorria gaztelaniaz egingo die, bere burua aurkeztuz eta hurrei nor diren galdetuz.</p> <p>Lehen saioan, hurrek maskota margotu, bere izena nola idazten ikusi, behatu eta aurkezpenak egiteko erabiltzea proposatzen dugu (hizkuntza-maila eta ezagutzaren arabera). Lehen unitatean euskaraz egin genuen aurkezpeneko formula-eredua erabil dezakezue poliki-poliki. Nahi izanez gero, osatu ere egin daiteke, bigarren edo hirugarren saio baterako.</p> <p>Lehenik Curro berak aurkeztuko du bere burua:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Hola. Yo soy Curro. Un loro (guacamayo) que se llama Curro. Soy el primo de Urdintxo. ¿Conocéis a Urdintxo? ¿Sí? Es muy alegre mi primo. Tengo diez años y me gusta viajar. Y quiero conocer a todos y a todaas. Mi primo Urdintxo me ha dicho que sois unos niños y unas niñas divertidísimos y divertidísimas. ¿Es verdad? ¡Qué bien nos lo vamos a pasar!</i> (Eta haurren hizkuntza-maila eta arretaren arabera bururatzen zaizuen guztia).</li> <li>- <i>¿Queréis pintar mi dibujo? ¿A que soy guapo, eh? ¿Quién ha dicho que no? AAM! Que no me entere...</i></li> <li>- <i>A ver. ¿Qué color vais a utilizar?... Zuri beltzeko irudia banatu eta margoak erakutsi koloreak aipatu ahala. Haiei utzi kolorea esaten. Inork ez badu aurreratzen, zeuok esan. ¿Este? ¿Qué color es este?</i></li> <li>- <i>¿Rojo? No. No. El rojo es el color de mi primo Reddy. El inglés.</i></li> <li>- <i>¿Azul? No. No. El azul es el color de Urdintxo, del cielo, del mar...</i></li> <li>- <i>¿Naranja? Bueno, el pico sí que es naranja. Vale y las patas...</i></li> <li>- <i>¿Negro? No que es muy oscuro.</i></li> <li>- <i>¿Blanco? ¡Qué soso!</i></li> <li>- <i>¿Verde? ¡Ese es mi primo el ecologista!</i></li> <li>- ...</li> <li>- <i>¿A-MA-RI-LLO? ¡Ay! ¡Al de amarillo que me lo pilló! ¡Qué color más bonito! El más bonito del mundo.</i></li> <li>- <i>Muy bien.</i></li> </ul> <p>Ikasleak margotzen ari diren bitartean, batetik bestera joan, lanari buruzko iruzkinak egiten eta aukeratutako koloreak aipatzen.</p> <p>Ondoren, hurrei (lagunduz) beren burua Currori aurkezteko eskatuko diegu. Horretarako, irakasleak eredu bat emango die, baina bakoitzak nahi duen moduan egiteko askatasuna duela adieraziz. Horrela, haurren hizkuntza maila/erraztasuna (ezer baldin badakite behintzat) ikusiko dugu. Gehien dakitenak has daitezela, besteontzat eredu izan daitezten. Guztiok txanda bakarrean ezingo dute aurkezpena egin; hainbat saiotan banatu...</p> <p><i>-Hola. Yo soy X. Tengo X años. Vivo en X. Me gusta X e Y...</i></p> <p>Aurrerago, beste unitateetan proposatzen diren jarduerak, Curro/Pierre erabiliz, aurkez ditzakezue bere ideiak izango balira bezala.</p>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	

## 2. eranskina: GUTUNEN EREDUAK

### 1. gutuna (5. jarduera)

"Dortoka" (gelari izenik jarri badiozue) gelako lagun maiteak:

Maddalen eta Fermin gara, Lehen Hezkuntzako lehenengo bi ikasturte hauetan zuekin batera zenbait istorio eta abenturetan elkarrekin ibiliko garen lagunak. Beno, eta gu bakarrik ez, gure laguntxo Urdintxo, Pox eta Reddy ere gurekin ibiliko baitira! Zer abentura? Lasai, har ezazue pazientzia eta joango zarete gauzak jakiten! Kontuak kontu, zaudete ziur, primeran pasatuko dugu elkarrekin!

Laster hobeto ezagutuko gaituzenez, ez dizuegu ezer berezirik kontatuko lehen gutun honetan. Bakarrik esan, gu biok oporretan ezagutu dugula elkar eta primeran pasa dugula gure maskotekin batera. Zuek ere ondo pasa al dituzue oporrak? Bai, ezta? Bada, ikusiko duzue ikastolan ere zein ondo pasatuko dugun eta zenbat gauza ikasiko ditugun!

Laster arte  
Maddalen eta Fermin

## 2. gutuna (10. jarduera)

Kaixo, Familia:

Maddalen eta Fermin gara, Lehen Hezkuntzako lehenengo bi ikasturte hauetan zuen seme-alabekin batera zenbait istorio eta abenturetan ibiliko garen lagunak.

Oporretan, espazioan eta denboran zehar ibiltzeko balio duen makina bat konpondu dugu eta gure asmoa, zuen seme-alabekin batera, historian barrena bueltaka ibiltzea da: dinosauroen garaian, lehen gizakien garaian, erromatarren garaian... Ikusiko duzue zein ondo pasatuko dugun eta zenbat gauza ikasiko ditugun elkarrekin!

Bestalde, Ttantto, Txirritx eta Xangori esker badakigu oso guraso zintzoak eta jatorrak zaretela. Beraz, guk eskatutako guzti-guztia gogoz eta ilusioz egingo duzue, ezta?

Beno, elkarrekin harremanetan izango gara, eta, bitartean, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Laster arte!  
Maddalen eta Fermin

¡Hola familia!

Os preguntaráis quién os manda esta carta. Pues somos Maddalen y Fermin, los nuevos amigos que acompañarán a vuestra-o hija-o durante los dos primeros cursos de Educación Primaria, vaya, en el primer ciclo.

Como lo nuestro no es precisamente el aburrirnos, durante las vacaciones hemos reparado una máquina que es capaz de moverse en el tiempo y en el espacio y con la ayuda de vuestro-a hijo-a pretendemos viajar a través de la historia. Sí, sí, de la historia: el tiempo de los dinosaurios, del hombre y de la mujer prehistórico-a, de los romanos y de las romanas... Ya veréis que bien lo pasamos y sobre todo lo que vamos a aprender...

¡Ah! Además sabemos de muy buena fuente (¿Os acordáis de Ttantto, Txirritx y de Xango?) que sois una familia muy responsable, muy fina y que hacéis todo lo que os pedimos con muchas ganas y muchísima ilusión. ¿A que sí?

Bueno, seguiremos en contacto y mientras tanto recibid nuestro más cordial saludo.

¡Hasta pronto!  
Maddalen y Fermin

## On Josepe Inventatore asmatzaile dotore

On Josepe Inventatore oso asmatzaile xelebrea zen, gauza bitxiak asmatzen zituen benetan.

Behin, “Zalantzak Sortzeko Makina” asmatu zuen. Makina hark “zergatik” galdetzen zuen beti, eta zalantzak sortzen zizkien guztiei.

Jendeak uste zuen makina hark ez zuela ezertarako balio, errazagoa delako galderak egitea erantzunak ematea baino, eta errazagoa oraindik zalantzak izatea ziur egotea baino.

Baina On Josepek esaten zuen zalantzak oso garrantzitsuak direla, jakintsuagoak egiten gaituztelako.

Behin, neska bat haserre zegoen, eta On Josepek esan zion:

—Aizu, haserre zaudela dirudi, baina... ziur ote zaude haserre zaudela?

—Zer, adarra jotzen edo? Ni oso haserre nago —esan zion neskak.

Orduan, On Josepek “Zalantzak Sortzeko Makina”ren aurrera eraman zuen.

—Neska honek ziurtasun bat du: haserre dago —esan zion makinari.

—Zergatik? —galdetu zuen makinak.

—Lagun batek jo egin nauelako —erantzun zion neskak.

—Zergatik? —berriro makinak.

—Ba, nik maripuzker esan diodalako.

—Zergatik? —berriro makinak.

—Ba..., puzker handi bat bota duelako —esan zuen neskak.

—Zergatik? —ostera ere makinak.

—Hara bestea! Ba, puzkerrak botatzeko direlako. Nik ere horixe egiten dut gogoia dudanean: puzkerra bota eta lasai asko geratu.

Makinak ez zion galdera gehiago egin. Ez zegoen beharrik. Neska konturatu zen berak egiten zuen gauza batengatik burla egin ziola lagun bati. Bat-batean, haserrea pasatu zitzaion eta, damututa, lagunarekin bakeak egitera joan zen.

On Josepek barre egin zuen pozik. Oso makina ederra asmatu zuela iruditu zitzaion.

Mitxel Murua

4. eranskina: IRUDIAK ZATIKATUTA




2. UNITATEA: IRAKASLEAREN MATERIAL OSAGARRIA (Proiektatzeko edota inprimatu eta zatika hurrei emateko)

AZALA:



IZENA:									

# MADDALEN ETA FERMIN OPORRETAN





# LAGUNTZOEN AURKEZPENA XANGOREN ESKUTIK





URTEBETETZERAKO  
SORPRESA ONENA  
ZAPI HORREN AZPIAN  
LOTAN DAGOENA.  
GOAZEN BAZTERRIK BAZTER  
BISITATUZ DENA  
VIANA, LONDRES, PARIS,  
ORIO, VIENA.

TRAMANKULU HORREKIN,  
NAHASI-MAHASI,  
PASATAKO DENBORAK  
EZAGUTZEN HASI,

ISTORIO ZAHARRAK  
KONTATZEN IKASI,  
ANTZINAKO GARAIRA  
GOAZ SASIZ SASI.

Txiliku



ANTENA



ERLOJUA

ORDENAGAILUA

PALANKA

ABIADA-BOTOIA

ATEA



DENBORAREN MAKINA  
BIRRAITONAK EGINA,  
ARIN, ARIN, ARINA.

MADDALEN NAIZ NI, ETA NI FERMININ  
UMORE EDERRAREKIN.  
BIDAIATXO BAT EGINGO DUGU  
URDINTXO ETA POXEKIN.

DENBORAREN MAKINA.....

DENBORAN ETA ESPAZIOAN  
ATZERA NAHI DUGU EGIN.  
LEHENGO DENBORAK EZAGUTZERA  
ZATOZ ZU ERE GUREKIN.



DENBORAREN MAKINA...

Joxan Ormazabal









# FERMÍN ETA MADDALÉN HASERRE DAUDE

**MAKINA BERRESKURATU ETA EGUNKARIAN AURKEZTU ZUTEN.**






EGILEEN IRITZIA			
1. GURE MAKINA...	 PRIMERAKOA DA	 ONDO DAGO	 EZ ZAIT GUSTATZEN
2. MAKINA EGITEAN...	 BIKAIN PASATU DUT	 ONGI PASATU DUT	 ASPERTU NAIZ
3. NORA BIDAIA TU NAHI DUZU?	..... .....		
4. NOREKIN BIDAIA TU NAHI DUZU?	..... .....		
5. MAKINAK FUNTZIONATUKO AL DU?	..... .....		

**ETXEKOEN IRITZIA**

Zer diozue gure makinari buruz? Funtzionatuko duela uste duzue?

.....  
.....  
.....



### OPINIÓN DE LA FAMILIA


¿Qué os parece nuestra máquina? ¿Creéis que funcionará?

.....  
.....  
.....

5. eranskina: PERTSONAIAK

AITONA







FERMIN



MADDALEN





6. eranskina: GIDAN azaltzen ez den, baina zuen gelan egin duzuen beste jardueraren bat txertatzeko txantiloia.

.... JARDUERA	
<b>ZIKLOKO HELBURUA(K)</b>	
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEA(K)</b>	
<b>METODOLOGIA</b>	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	
<b>AZALPENA</b>	
<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>	